

## DOLUAN

Bart hamarretan dontzeila nintzen,  
hamaiketako senarra,  
gaueko hamabi santuetako  
gelditu nintzen bakarra.  
Sentimendua, sentimendua,  
handi goa pena,  
ordu beteko senarragatik  
largun izan beharra.

*(Herrikoia)*

Aurre solasa

Ongi adierazten du bertsoak zure emozioa; ez osorik, ordea. Hondamendiaren zapore mingotsa oroimenaren usain gozoarekin nahasten baita zure barnean. Ezin, inondik ere, hitzez marraztu buru-bihotz arteko borroka hori; ezin, inola ere, berbaz gorpuztu heste arteko korapilo anitza.

Kirruzko izarek oraindik larru gaziaren usaina gordetik dutenean, zuk eraztun bikoitza eta gauezko soinekoa jantziko dituzu; eta ilea lotuko, argirik gabeko zapi azpian.

Ez zara gehiago dontzeila izango. Dagoeneko ez zara gehiago neska gazte txirikorda bikoitza bihurtuko.

Ordubeteko senarragatik izendapen berria zeureganatuko duzu, etxearen, herriaren, tradizio eta legearen izenean.

Alargun.

## Abiapuntua

Lorezko azala, urezko usaina, *traka-traka*, trostan zoaz, udaberri goizaldean.

Osorik daramazu barrua, osorik azala.

Osorik eta askerik zoaz, bada, trostan, lehen bidaia bakar-tian.

Eta, bat-batean, ez jakin nondik, azal berri bat agertzen zaitzu, *da!*, aurrera zaramatzen bide bakartian.

“Nor ote da?”

Ez zizun ezer esan. Soilik begiratu.

Aurrena, ez zizun ezer esan, baina hantxe aurkituko zenuen biharamunean ere; berriz goiz, berriz bide bazterrean.

Azal erdi estalita, larruzko jaka soinean. Beste erdia agerian, mahuka bilduriko beso biluzietan.

Eta orduan, enegarren aldian, dontzeilaren azal ezagun hori larru bizian sumatuko zenuen, gordin-gordin, gori-gori.

Eta, orduan, enegarren enkontruan, zure dontzeilazko azalari larru usaina hartuko zenion, bat-batean.

...Eta beste azal bat, beste etxe bat, beste lore bat desiratu-ko zenituen...

largia makurturik zegoen; eguzkia, larrua estreinatzeaz.

Nora zoaz? Galdetu zizun.

Azokara. Erantzun zenion.

Zurekin noa.

**Eta *krak!***

Hamaika eta erdiak inguru izango zen leihotik sartzen sentitu zenuenean.

Ez zenuen ikusi, baina. Begiak itxita zenituenez, kanpoko begiekin ez zenuen ikusi. Baina barrukoekin, bai.

Marko ertza. Lur gaineko ezpala. Badenaren eta ez denaren lorratza.

Herioren urratsa?

*Krak!*

Izua izan zen lehena. Izua izan zen oin, esku eta buru, guztiak indar biziz dantzatzera bultzatu zintuena.

Hitzak hestegorrian kateatu ziren arnasaren lehia galduta. Listua ur bihurtzen hasi zen. Ura zero bilakatu zen, zango zabal, zapora ezezagunen pasiloan barna abiatu zinenean.

*Krak!*

Bidaiari arrotzari gelaska eskaini zenion, eta zure barruko ura bere egin zuen.

Miel. Ez zenuen izenik aipatu, baina. Ezpainak ireki zenituen, hatsari habia egiteko. Ezpainak, adurrari arima oparitzeko.

Erraiak gori eta bularrak tinko zenituen, jada.

Orduan. Izua eta beroa, beroa eta mina, mina eta egonezina, egonezina eta grina batzartu ziren, orduan. Eta, orduan, zango zabal, zure hatsa eta adurra urezko gela ilun hartan igerian hastear zeudenean, orduantxe sentitu zenuen iritsia zela, inguruan zela, jada, nor eta, Herio, bere zaldi zuri-beltzean.

*Krak!*

Ileak askatu ziren, berez. Atorra erantzi zenuen, nahita. Eta behetik gora, azpitik gainera, barrutik kanpora irten, atera, zabaldu, jalgi zinen, azokara bakarrik joaten hasi zinenean bezala.

Orduantxe izan zen. Marea kulunkarian gora eta behera zarabandatu zinenean; ondorengo gau, gauerdi eta goizaldeetan izu hura ezti bero bihur zitekeela egiaztatzen ari zinetenean.

Orduantxe izan zen, izandakoaren izena galtzear, dontzeilaren azpitik gailentzen ari zen anderea zankalatraka jarri zenean, senar berriaren altzo amoltsuan.

Miel?

Eta, *krak!*

### **Aitzin solasa**

Miel dagoeneko ez da Miel. Haragi gatzik gabea da Miel.

Joan da zalduna, urduna, laguna.

Senarra.

Hala ere, ez duzu nahi inork uki dezan. Hala ere, ez duzu nahi inor izan dadin haren larru biluzia jantziko duena.

Zeuzarelako, oraindik, Mielen ele bakarra.

Zeuzarelako bart dontzeila, aurki alargun, baina artean andere eta emazte izanik, oraindik ere, harena dena, badena.

Badena.

Horregatik, horrexegatik igurtzi duzu dena, osorik, ur epel bedeinkatuaz, guztia oroimen ore bihurtuz.

Eta, horrexegatik, Heriok hustu eta hoztu duen gorpu hori eskuetan hartu eta orraztu duzu, haur txiki berria orrazten den eran, “ume txikia lo eta lo, zeuk orain eta neuk gero, biok batera lo egin ezker, etxea nork jagon ez dago.”

Eta begiak ukitu dizkiozu, *tik!*, gero kandela negar banarekin betiko ixteko, *tak!*

Eta begiratu egin diozu. Aurrena, goitik behera; eta, ondoren, parera makurtuta.

Begiratu egin diozu, beste behin ere, azkena dela ahaztu guran, zuen desira lelo ezagun bihurtzeaz dagoela jakitun bazeunde moduan.

Eta, *pa!*

Desira eta haragia, biak alde batera.

*Pa!*

Garbitu duzu haurra, mutila, gizona eta senarra.

Garbitu duzu Mielen hilotza, ur epel zerutiarraz, eta eskuak elkartu dizkiozu bular parean.

*Pa!*

Kandela handia piztu duzu, gero.

Eta ereinotz adaska bat pausatu, erretilu gainean.

*Pa!*

Prest dago haurra, mutila, gizona eta ordubeteko senarra.

Prest dago Mielen itzala.

Hutsa, hotza, bakarra.

Zu zeu bezala.

*Pa.*

*Yolanda Arrieta*